



DIRU-SARRERAK

SegurAte zerbitzua diru-sarrera eredu misto baten bidez eskaintzen da, hasierako ordainketa bakarra eta hileko ordainketa errepikakorra uztartuz, bezeroak eskaintzen den produktu eta zerbitzuagatik ordaintzeko prest dagoenaren arabera.

Alde batetik, bezeroak hasierako ordainketa bat egiten du, larrialdietako ate-irekiera automatikoaren sistema instalatzeko. Ordainketa horrek barne hartzen ditu sistema hornitzea, edozein ate motatara egokitzea, detektagailuen eta larrialdi-botoiaren konfigurazioa, aplikazio mugikorraren aktibazioa eta larrialdi-zerbitzuekin eta senideekin lotura ezartzea. Ordainketa bakar hau enpresarentzat diru-sarrera puntuala da, materialaren eta instalazioaren kostuak estaltzeko balio du.

Behin sistema instalatuta dagoenean, bezeroak hileko kuota finko bat ordaintzen du, zerbitzuaren diru-sarrera errepikakor nagusia dena. Kuota horren barruan sartzen dira sistemaren mantentze-lanak, urrutiko monitorizazioa denbora errealean, laguntza teknikoa, softwarearen eta APP-aren eguneraketak, segurtasun-kodeen etengabeko berritzea eta aktibazio guztien erregistro digitala. Horrela, bezeroak ez du soilik produktu fisiko batengatik ordaintzen, baizik eta larrialdi-egoeretan funtzionamendu egokia bermatzen duen zerbitzu jarrai batengatik.

Prezioei dagokienez, SegurAte zerbitzuak prezio konbinatua du: hasierako ordainketa prezio finkoa da, eta hileko kuota ere egonkorra da denboran zehar. Horrek bezeroari gastuak aurreikusteko erraztasuna ematen dio eta enpresari diru-sarrera egonkorrak bermatzen dizkio.